

TEATRO VASCO

Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones

LIBURUAREN AURKEZPENA
VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
DONOSTIA, 2009-III-26

PATRICIO URQUIZU

(UNED)

Egunon, denoi.

Lehenik nire eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiot Donostiako Udalari eta bereziki Ramon Etxezarreta aspaldiko lagun zaharrari eskaini didan aukeragatik ene liburu hau presentatzeko Nazioarteko antzerti egunaren bezperan, non eta Victoria Eugenia Antzokian.

Eskerrak, bai halaber Aitzpea Goenaga aktosari, gure teatroaren historian izen funtsezkoa denari eta zine zuzendari ezagunari izan duen kortesiagatik hain lanpeturik izan eta unetxo bat aurkitu duelako hemen gure artean egoteko.

Gauza ezaguna da Euskal Teatro Berria Donostian sortu zela 1878ko maiatzaren 12an Antzoki Zarrean Marzelino Soroaren eskutik eta *Iriyarena* obrarekin. Geroztik bide luzea du egina, baina izen funtsezkoak izan dira Abelino Barriola, Eusko Iztundearen katedra sortu zuena eta Toribio Alzagak irabazi zuena eta Shakespeare lehenik euskaraz eman zuena 1924eko abenduaren 20an.

Gerra zibilaren aurretik eta ondotik Antonio Labaien tolosarraren izan zen teatro-gizon garrantzitsuenetariko, zeinek 1965ean hain zuzen, plazaratu zuen *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático. Entrevistas, reseñas, crónica. Catálogo de obras dramáticas*, bi liburukitan.

Beraz, antzeko zerbait egin dut nik 44 urte geroago, baina ez Auñamendi argitaletxean UNED-en baizik.

Aspalditxo hasi nintzen euskal teatroa ikertzen, zeren nire lehen lantxoak 1975ekoa da, *Euskal teatroaren historia*, titulua ezarri nion.

Gaur aurkezten dugun liburuan ordutik hona eginiko azterketak eta lanak biltzen ditu. Eta portadako tituluak dioen bezala, multzo ezberdinez osatua dago:

Historia, lau kapitulutan banatua [11-148 orr.]

Erreseinak eta elkarrizketak [149-223 orr.], non azpimarratu nahi nituzke, besteak beste,

Félix Centenoren elkarrizketa bat Toribio Alzagarekin 1924ean egina «El País Vasco»-n.

Ojarbideren «Ideal y realidad» *Macbeth*-en estreinaldiaz «Euzkadi»-n 1925ean, non arrazoinatzen den autore atzerritarren antzeztearen garrantziaz.

1983an neronek Albert Boadellari eginiko elkarrizketa «Antzerti berezi»-an plazaratua.

1984ean Alfonso Sastrek idatzitako *Cómo se hace un teatro nacional* artikulua edota

2005ean *Artez, Revista de artes escénicas*-en 104. alean Aizpearen *Ongi Ibili* antzerkiak eginikoa.

Antología elebiduna [223-423 orr.], non 30 antzerkigileren obren testu hautatu bana aurkezten dudan gaztelaniazko itzulpenarekin.

Egile eta obren, hala nola itzulpenen katalogoak [423-446 orr.]. Ahalik eta osatuenak ematen saiatu naizen arren badakit batenbat edo beste falta dela, baina oraingoz osatuena dela esango nuke, eta gainera interneteko www.teatro-tes-tuak.com atarian ageri direnak ere sartu ditut.

Bibliografía [447-456 orr.]. Eta azkenik

Ilustrazioak [457-574 orr.], uste baitut irudia eta testua lotzen duen arteak behar-beharrezkoa duela kapitulu hau.

UNED-eko *cuadernos* sailean dago argitaratua, eta beraz, Master bateko esku-liburu gisa dago pentsatua, alegia, *Formación e Investigación Literaria y Teatral en el Contexto Europeo* deitzen denaren B espezialitaterako, hots, *Interculturalidad Teatral Europea*-rako.

Asmatu dudana ala ez zuek epaitu beharko duzue. Argia dagoena da hutsune bat betetzera datorrela, ez dagoela antzekorik merkatuan, eta gurea kanpoan agertzeko bidea dela, Iparragirren bertsoari jarraiki, *eman da zabal zazu munduan frutua*.

Agian obra honen munduratzeko beste modu bat ingelesez agertzea litzateke, **Basque Theatre** tituluarekin, beste era ezberdin batez moldatua, ttipiago, azal gogorrekin, eta eranskin batean euskal antzerkien selekzio baten CD batekin, etabar, baina hori jadanik ez dago nire esku. Oraingoz honekin konformatu beharko.

Bukatzeko oroitu nahi dut herenegun hil zen Ricardo Salvat (Tortosa 1934-Bartzelona 2009) teatro gizon peto-petoa, Sitges-eko Teatro Festivalaren arima, eta bertan 1983an ezagutu nuena. Salvador Espriu-ren *Primera Historia D'Esther*, (1948), obrarekin etorri zen Donostiara eta hemen Victoria Eugenia antzoki ederrean ikusi ahal izan genuen 1968an. Eskerrak eta omena ongi mereziak diuelakoan nago.

Eta besterik ez. Milesker zuen arretagatik.